

-KO/-DUN ATZIZKIEZ

Miren AZKARATE, Patxi ALTUNA

Bi atzizki hauen arteko lotura, antz eta desberdintasunak jorratzen hasi aurretik beharrezko dirudi bakoitzaren gainean esan denaren azalpen labur bat ematea. Izan ere, arreta berezia merezi izan du *-ko* atzizkiak euskal gramatika aztertu dutenen artean; honi buruz aipa daitezkeen artikuluetatik azken urteetakoak bakarrik hartuaz, hor ditugu, urrunago gabe, Goenaga (1980), Trask (1985), De Rijk (1988), Euskaltzaindia (1985, 1987) eta Mitxelena (1972a, 1972b, 1986) hizkuntzalarien lanak. Bigarren atzizkia, *-dun*, aldiz, halako ikerketa-sortarik ezagutu ez arren, berariaz aipatua da Azkue (1923-25), Villasante (1974) eta Euskaltzaindiaren (1991, ik. Elkarre sintetikoak) lanetan. Bakoitza bere aldetik aztertua izan bada, zergatik saiatu orain biak alderatzen? Ba al dute inolako loturarik antz eta desberdintasunak argitzen ahalegintzeko? Egia esan, ez gara honetaz arduratu garen lehenak, Altubek (1929: 208-226§) eta Euskaltzaindiak¹ (1987: 52-58) ere landu bait dute gai hau. Zein arrazoi dugu orduan berriro honetaz aritzeko? Alde batetik, garbi dago gaurko hizkuntzalaria nekez asebate dezakeela Altuberen azalpenak —bere garaiko seme izaki, planteamentuak ere halakoak dira—; Euskaltzaindiaren gramatikan behin baino gehiagotan ageri da hizkuntzalari bizkaitarrarekiko ezadostasuna. Bestalde, bere helburua ere ez bait da hori, Euskaltzaindiaren lanari ordura arteko azterketak bildu eta eztabaidatzea falta zaio. Horregatik iruditu zitzaigun beharrezko *-ko* eta *-dun*-en arteko loturaz berriro arduratzea. Ikus dezagun lehenik, bada, zein zen Altuberen teoria, gaur gehienentzat ezezaguna dela uste dugulako xeheki azalduko duguna.

¹ *-ko* atzizkiaren azterketa da berez, baina zeharka *-dun*-en aipamena ere hainbatetan egiten da.

I. ALTUBE-REN TEORIA

Hiru ataletan banatzen ditu *-dun* eta *-ko*, oinarriaren arabera, izenari, ize-
nondoari eta zenbatzaileari lotzen zaizkioneko kasuak bereiziz. Ondoren, haue-
tako bakoitzaren barnean, adiera hartzen du alderaketa-ardatz gisa:

1. Izena oinarri

- 1.1. **Izena + *-dun***: norbaitek aldi bateko dituen objektuak (materialak gehi-
tan, nahiz inmaterialak ere izan daitezkeen) adierazten omen ditu halako
egiturak, jabeari nahitaezko ez zaizkionak, objektu horiek gabe ere bizi dai-
tekeelarik pertsona hori. Ondorioz kontrakoa erabateko gabezia adierazten
duen egitura da, «izena + *gabe(ko)/bako*»:

arduradun/ardurabako, bizardun/bizargabe(ko), osasundun/osasun gabe(ko)

Bide beretik, *-dun* omen da espezie batekoek duten ezaugarria (beste espe-
zietakoak ez dutena) adierazteko erabili behar dena:

ugazdun/ugaz-gabeko, bizidun/bizibako, zentzundun/zentzubako, arimadun/arimabako...

- 1.2. **Izena + *-ko***: oso zaila omen da horrelako egiturak aurkitzea, *yaseko*, *esane-
ko*, *legeko* eta beste adibideren bat kenduz gero. Berehala itzuliko gara baiez-
tapen honetara.

2. Izenondoa oinarri

- 2.1. **Izenondoa + *-dun***: jabeari nahitaezko ez zaizkion objektuak kalifikatzen
dituzten izenondoei eransten omen zaie *-dun*

bizar gorridun, giltza barridun, zor askodun, betaurreko baltzdun, urrezko belarritakodun,
jabe bakardun...

Ez omen da, ordea, hain erabilera egokia gorputz-atalei dagozkien izenon-
doei eranstea, horiek ezin kenduzkoak bait dira:

beso luzedun, anka biribildun

- 2.2. **Izenondoa + *-ko***: zera abstraktua, inmateriala duela norbaitek adierazteko
(«cuando el objeto poseído es inherente al sujeto y de naturaleza abstracta o
inmaterial»).

osasun ederreko mutila

Edo objektua materiala izan arren, zentzu figuratua, inmateriala hartzen
duenean

bihotz biguneko andrea

Ez omen da hain egokia *-ko* erabiltzea pertsonaren atal edo zati handi sama-
rra adierazteko

azal zuriko umea, gorputz astuneko gizona

3. Zenbatzailea oinarri

- 3.1. **Zenbatzailea + -dun**: zenbatzailea jabeari (objektu hori duenari) nahitaezko ez zaizkion objektu materialekin ageri denean, egitura osoak **-dun** har dezake

gerriko bidun gizona, lau seme-alabadun alarguna, «saspi ardi-dunak bat emoten badeutso bos-tunari biyak seiña» (Kirikiño)

ehun pezetadun diru-poltsa, lau ardidun artzaina, etxe bidun etxaguna

- 3.2. **Zenbatzailea + -ko**: gainerako kasuetan **-ko** aukeratu behar da

urte biko umea, hiru urteko umea, libra biko ogia, kainoi biko eskopeta, errobeda biko gurdia, hiru hankako aulkia, ehun pezetako diru-papera, ehun pezetako saria, bizitza biko etxea, hiru hortzeko aitzurra, lau txirringako gurdia...

«lo poseído es objeto material pero esencial, no circunstancialmente poseído por el sujeto; y basta esta condición (es la primordial) para que exija la sufijación de **-ko** (Altube 1929: 222§)

Izan ere, ezinezkoa omen da adinik gabeko umerik edo kainoirik gabeko eskopetarik aurkitzea. Halaber, Altubek deskripzio geometrikotzat hartzen dituen ondoko adibideek ere **-ko** eskatzen dute

arpegi biko oihala, zortzi puntako painueloa, zortzi puntako mantoia

4. **-ko** eta **-dun** izen balioan (cf. 1., 2. y 3.) bi atzizki hauek izenondoak sortzen badituzte ere, sarri izenondo hauek izen balioa hartzen dute

bizar gorriduna, bihotz onekoak, hanka bikoa, lau hankakoa, erreal bikoa, lau zurikoa, hortz bikoa, hiru hortzekoa

Azalpen honen ondoren, aurrez-aurre ematen ditu gaizki erabiltzen omen diren formak eta horien ordain zuzen liratekeenak:

OKER

ZUZEN

- | | |
|--|--|
| a. Gizon entzute aundidun bat | Gizon entzute aundiko bat |
| b. Hilabetedun umea bata, bestea urtebeteduna, ta nagusiena lau urteduna | Hilabeteko umea bata, bestea urtebetekoa, eta nagusina lau urtekoa |
| c. Pisu haundidun ganadua | Pisu haundiko ganadua |
| d. Lau libradun ogia | Lau librako ogia |
| e. Eskatu ez dugun gaidun idazlana bialdu digu | Eskatu ez dugun gaizko (gaiezko) idazlana bialdu digu |
| f. Zabalera haundidun etxea | Zabalera haundiko etxea |
| g. Azal ederdun umea | Azal ederreko umea |
| h. Gizon arpegi okerdun bat | Gizon arpegi-okar bat |
| i. Mutil gerri mehedun eta hanka luzeduna | Mutil gerri-mehe hanka-luzea |
| j. Judu buru-bihotz gogordun hek | Judu buru-bihotz gogor hek |
| k. Adimen laburdunak izan gaisoak | Adimen-laburrak izan gaisoak |
| l. Zori-ondunak horiek, zori-gaiztodunak haiek | Zori-onekoak horiek, zori-gaiztoak haiek |

.	Euskal-zalea eta ekandu on-on-	Euskal-zalea eta ekandu on-one-
	dun neskatila liraina	tako neskatila liraina
n.	Jon Mari, begi argidun mutila	Joan Mari, begi argiko mutila
ñ.	Izan leike gizon bat ezker ondu-	Izan leike gizon bat ezker onekoa
	na izatea baina eskar txarduna	izatea baina eskar txarrekoa
o.	Mutil gazte bihotz ondun eta	Mutil gazte bihotz oneko eta
	gogo berodunak	gogo berotsuak
p.	Èramanpen sendoduna	Èramanpen sendokoa
.	Buru argi, adimen zoli ta biotz	Buru argi, adimen zoli eta biotz
	andidun gizonak	andiko gizonak
r.	Zortzi puntadun painelu eta Ma-	Zortzi puntako painelu eta Mani-
	nila'ko mantoe dotoreenak	la'ko mantoe dotoreenak
s.	Kaitano fede otz-dunaren etxea	Kaitano fede otzekoaren etxea
t.	Zazpi eta bost izkindun neurti-	Zazpi eta bost izkineko neurti-
	tzak osatutakoa	tzez osatutakoa

Azkenik, ondoko adibideek esanahi desberdina lukete Altubereren eritiziz neurtitzdun liburua / neurtitzezko liburua

lehenak liburuak kasualidadez neurtitz batzuk dituela adieraziko luke; bigarrenak, ostera, erabat neurtitzez osatutako liburua dela. Bi forma horien ondoan, *neurtitz-liburua* izen elkartuaren aukera ere hor dugu, agian euskaldunak nahiago lukeena.

II. ADIZLAGUNA + -KO / IZEN-MULTZOA + -KO / IZENA + -KO

Zer esan Altubereren azalpen honen aurrean? Hasteko eta behin, argi dago Altubek *-ko* atzizkiaren balioetatik bat bakarra duela aztergai, Trask-en (1985: 171) hitzetan esateko, «*-ko* deribazionala», izen-multzoari eranstean zaiona, alegia. Artikuluaren hasieran aipatutako atzizki honi buruzko azterlanek erakutsi dute badela *-ko* bat adizlagunari erantsiz izenlagunak sortzen dituen².

burniz → burnizko, legez → legezko, izar urdinetaraino → izar urdinetarainoko, hizkuntzarekin → hizkuntzarekiko, gureztat → guretzako

«Gizaldien arteko burrukari legezkoa deritzat» (Mixelena, *Euskal idazlan guztiak* IV, 32)

«Hizkuntzarekiko auziak ez baitaude oraindik egon behar luketen egoeran» (Mixelena, *Euskal idazlan guztiak* IV, 33)

«Soin zaharrari gogo berria eman eta gogo hortan izar urdinetarainoko asmoak sortarazi» (Mixelena, *Euskal idazlan guztiak* IV, 24)

Era berean, adizlagunen pareko funtzioa betetzen duten aditzondoi ere erants dakieke *-ko*³:

² Ikus Euskaltzaindiaren gramatikan ematen den azalpena (*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I* (Eranskina), 50-51 or.)

³ Ikus halare Trask-en (1985) eta De Rijk-en (1988:79) baieztapena, atzizkibidez eratorritako aditzondoi ez dutela orohar *-ko* onartzen, eta baieztapen honen kontrako adibideak: *presakako*, *bakarkako*... (*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I* (Eranskina), 51. or.)

- «Ia ezin jaso ahalako zama astun hori» (Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak* IV, 25)
«Bera baino hobeak beharbada, ez halare behar adinakoak» (Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak* IV, 24)
«Hitz sarkor betikoak ahora etorri zaizkio» (Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak* IV, 24)
«Gaurko au bezalako artikuluetan ez duzu aurrera aurkituko *nuan, nuban...*» (Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak* IV, 36)

Azkenik, itxuraz, azalean, *-ko-*ren aurretik inolako kasu-markarik ez duten *mendiko, uholde handiko, garaiko* edo *ezkutuko* izenlagunen azpian *-n* kasu-marka inesiboa dagoela onartzen da (Mitxelena 1972a, b; Goenaga 1980, Trask 1985, De Rijk 1988). Beraz, hauek ere 'adizlaguna + *-ko-*'egiturak dira azken batean:

- «Besteek somatzen ez dituzten ezkutuko deiei bihotza idekitzen diotenak» (Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak* IV, 26)
«Beharbada, eta gehienetan gure garaikoeak maite genituen [berrikeriak]» (Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak* IV, 31)

Azalpen-modu honen ondorio, adizlagunak izenlagun bihurtzen dituen *-ko* hau (izenlagun-osaketan kide duen *-en-*ekin batera⁴), kasu-marken sailetik atera beharra azpimarratu da, nahiz oraintsu arte *-n, -ra* edo beste edozein kasu-markaren parean azaldu gramatiketan. Zein sailetara eraman ordea? Mitxelena (1986: 538-541) erator-atzizkitzat hartzearen aldeko azaldu zen, berezitasun gisa beste erator-atzizkiak baino usuago agertzen direla aipatuaz. De Rijk (1988: 78) ere bat dator, «*-ko* is not an inflectional morpheme at all, but rather a derivational one». Azkenik, Euskaltzaindiaren gramatikan ere «*-ko* erator-atzizkia» behin eta berriro ageri den definizioa da. Bada, ordea, honetaz zer esanik; hiru puntutan bilduko ditugu proposamen honen aurkako datuak⁵:

1. Morfologia sortzailearen barnean behin eta berriro aipatu da⁶ hitz-eraketa erregeletan (hau da eratorpenean eta hitz-elkarketan) kategoria lexikalek (izena, izenondoa, aditza nagusiki) hartzen dutela parte, ez hortik gorakoek (sintaxi-kategoriek: izen-sintagma, adizlagun etab.ek). Aztergai dugun atzizkiaren kasuan guztiek onartzen dute adizlaguna duela oinarri, sintaxi-kategoria, beraz. Horrexez azaltzen da *-z, -ra, -kin...* kasu-marken ondoren; gramatiketan tradizionalki erator-atzizki gisa aztertu izan direnak, *-tasun, -keria, -tsu, -tzaile* etab. ostera, ezin dira inolako kasu-markaren ondoren azaldu.

⁴ Ez gara, dena den, bien arteko desberdintasunaz arduratuko. Ikus, horretarako, Mitxelena (1972a, 1972b, 1986)

⁵ *-ko* deklinabide-atzizkitzat (kasu-markatzat nahiago bada) ez hartzeko dauden arrazoiak ez ditugu aipatuko, Mitxelenak (1986) nahikoa argi azaltzen baititu.

⁶ Ikus, adibidez Roeper & Siegel (1978: 202 or., 212 oharra), Selkirk (1982:48) edo Scalise-
ren (1987-176-179) baieztapena: «Lo que muestran tanto los ejemplos del inglés como los del italiano, es que existen fuertes restricciones para la aplicación de RFP a bases más amplias que la palabra simple. Concretamente, este proceso parece limitarse a sintagmas lexicalizados, observación que es relevante para la organización del léxico, ya que requiere que tales sintagmas estén almacenados en él junto con las palabras normales»

2. Erator-atzizkiek, kategoria lexikal batetik abiatuz beste kategoria lexikal berri bat sortzen dute (edo oinarri den kategoria lexikalaren azpikategorizazioa aldatzen dute: izenondo bati *-tasun* erantsirik izena lortzen dugu, aditzoinari *-keta* ezarri eta izena sortuko dugu, izen bizigabeari *-ari* gehitu eta [+gizakia] motako bihurtuko dugu, etab. Sortu dugun hitz⁷ berriak, kategoria bereko beste edozein hitzek bezala jokatu du: izena bada, esaterako, izen-sintagmaren ardatz izango da eta determinatzailea gehi kasu-marka hartuko du izen-sintagma osatzeko. Alde honetatik egia da, Mitxelenak dioen bezala, *-ko* atzizkiak mugatzailea eta edozein kasu-marka har dezakeela ondoren (*etxerakoak, urrezkoekin...*); baina egia da aldi berean aipatu ditugun sintagmak ulertezinak direla beste inolako testuingururik gabe. Horrelakoak entzuten dituenak «baina etxerako zer?» edo «urrezko zerekin?» galdetuko luke laister asko. Azken batean, ezaguna den izena isilpean utziz sortzen dira *urrezkoak* bezalako adibideak.

3. Erator-atzizkiak ager daitezke beste erator-atzizki baten aurretik nahiz ondoren; beste modu batera esanda, atzizki baten bidez hitz berria sortu ondoren, hitz berri hau aldi berean oinarri bihur daiteke beste erator-atzizki bat erantsiz bigarren hitza sortzeko. Horrelakoak ditugu *eman* → *emankor* → *emankortasun* edo *izotz* → *izozki* → *izozkigintza* segidak. *-ko* (eta *-en*) atzizkien aurretik nahiz atzetik, aldiz, ez da erator-atzizkirik azaltzen; *izozkien* edo *ardandegiko* lehen begiratuan *-ki* + *-en*, *-tegi* + *-ko* katez osatuak iruditu arren, berehala ohartzen gara mugatzaile plurala dagoela *-ki* eta *-en* atzizkien artean *izozkien* adibidean (singularreko *izozkiaren* ikustea baino ez dago) eta inesibo-marka + *-ko* dela *ardandegiko* izenlagunaren zatiketa zuzena (*ardandegian* + *-ko*).

4. Azkenik, Mitxelenak azpimarratu zuen bezala, erator-atzizki ohizkoek ez bezalako emankortasuna dute izenlagunen marka hauek (*-en* eta *-ko*-k).

Hala ere, bete-betean erator-atzizki den *-ko* bat badenik ezin uka daiteke. Hala ikusi zuen Azkuek (1923-25: 122§) erator-atzizkien sailean sartu bait zuen.

- (1) Lekukoek diotena oso kontutan hartzen du epaileak
- (2) Benetan belarritako politikak opari egin dizkizute
- (3) A ze betondokoa hartu duzun!

(1) - (3) perpausetako *-ko* izenari eransten zaio eta sortzen dena ere izena da⁸. Badira, haatik, desberdintasunak:

- (1) [-biziduna] + *-ko* → [+gizakia]
- (2) [-biziduna, +gorputzeko atala] + *-ko* → [-biziduna, +objektua]
- (3) [-biziduna, +gorputzeko atala] + *-ko* → [-biziduna, +kolpea]

⁷ "Hitz" terminoa gaur egun morfologia sortzaileak darabilen zentzuan darabilgu.

⁸ Agian "lekuko pertsona" (lekuan + *-ko*), "belarritako apaingarria" (belarrietan + *-ko*), "betondoko kolpea" (betondoan + *-ko*) egituretatik sortuak izango dira; baina ukazina da gaur egun beste edozein izenen ditribuzioa dutela eta hala jokatzeko dutela.

Oinarri den izenaren azpikategorizazioa aldatzen duen *-ko* hau (agian *-ko* atzizki desberdinez ere hitz egin dezakegu), beste erator-atzizki batzuren aurrean ager daiteke *lekukotasun*, edo *belarritakogintza* izenek erakusten duten bezala. Azkenik, nabaria da bere emankortasuna adizlagunari erantsiz izenlaguna sortzen duen *-ko* atzizkiarena baino askoz mugatuagoa dela.

Altube bere azalpenean ez da ari *-ko* hauetaz, hirugarren batez baizik. Izan ere bada izen-multzoari erantsiz izenondoaren baliokide diren egiturak sortzen dituen *-ko* ere:

- (4) Emakume hori bihotz onekoa eta sotila da
- (5) Ez da hori noski jakite ziurra eta egiazkoa, egiantzekoa baizik (Mixelena, *Euskal idazlan guztiak* IV, 39)

Izenondoarekin koordinazioan ageri den *-ko* honen azpian ez dago inola ere adizlagunik; erlazioa eutezkoa litzateke adibide hauetan, “bihotz ona duen emakumea”, “egiantza duen jakitea”. Hauxe da Altubek *-dun* atzizkiarekin alderatzen duena eta bereziki aztertu nahi duguna. Izan ere, Altuberen sailkapenean izenondoari eransten zaizkion *-ko* eta *-dun*, egiaz, izen-multzoa oinarri dutenak dira: ez dira *gorri* edo *eder* oinarria *bizar gorridun* eta *osasun ederreko* diogunean, *bizar gorri* eta *osasun eder* izenmultzoak baino.

Orain arte esana laburtuz, beraz, hiru egitura-mota berez daitezke *-ko* atzizkia aztertzean:

1. Adizlaguna + *-ko* → izenlaguna, zeharo produktiboa, berez erator-atzizki ez litzatekeena (ez behintzat oro har eratorpenean aztertzen diren atzizkien parekoa).
2. Izena + *-ko* → izena, “pertsona”, “apaingarri, jantzi”, “kolpe” adierak har ditzakeena oinarriaren arabera, erator-atzizkitzat hartuko genukeena.
3. Izen-multzoa + *-ko* → adjektiboa (izenondoaren pareko balioa duen izenlagun-itxurako elementua⁹).

III. EUSKALTZAINDIAREN GRAMATIKAKO AZALPENA

Euskaltzaindiaren azalpenean lehen eta hirugarren balioak jaso dira¹⁰, ‘izen-multzoa + *-ko*’ deitu dugun egitura, izen-multzoaren osakera desberdinen arabera azpisaillkatuz. Honenbestez, hirugarren erabilera hori hiru azpimultzotan banatzen da:

⁹ Ikus Euskaltzaindia (1987: 50-60)

¹⁰ Azkenean aipatzen da, dena den, izen propioari nahiz arruntari erantsiz “etxe” adierako izenak sortzen dituen *-ko*: *Kondekoa*, *Kanposkoa*, *Txopekoka*...

1. **Izena + -ko**: izenaz bakarrik osatutako izen-multzoak gutxitan hartzen omen du *-ko*, izenlagun kalifikatzailea osatzeko (Altubek zioenarekin bat datorrena).

ixurako pertsona, edadeko pertsona, hitzeko gizona, adineko idia¹¹

Gainera izenak [+abstraktua] behar duela izan azpimarratzen da:

«Ez dugu sekula ere, «hanka duen mahaia» esateko **hankako mahaia* esango, ez eta **besoko pilotaria* edo antzekorik ere, jakina. Horrelako kasuetan *-dun* atzizkiaz baliatuko gara, *hankadun mahaia*, *besodun pilotaria* eta antzekoak esanez, *-dun* atzizkia baitugu aukera bakarra, gehienetan bederen. Zernagi gisa, delako *-ko* horrek ez du beti *-dun* atzizkiaren balioa» (*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I* (Eranskina), 52. or.)

2. **Izena + izenondoa + -ko**: Altuberen bereizketaren (*-dun* = aldi bateko objektuak/*-ko* pertsonak bere-bereak dituenak eta materiarik gabeko izaera dutenak) erabat bestelakoa ikus dezakegu Euskaltzaindiaren gramatikan.

a. Oro har izena + izenondoaz osatutako izen-multzoak *-ko* atzizkia hartzen du, izenak abstraktuak nahiz konkretuak direlarik (*neurri gaitzekoa*, *gatz gutxiko emakumea*, *gorputz handikoa*¹², *jite txarreko jendea*, *hots handiko festa...*); egitura honetako oinarriarekin nekez erabil omen daiteke forma konposatua (hau da, Bahuvrīhi elkarteak, *hanka-okera*, *sudur-luze*, *eskuzabal* bezalako izenaz gehi izenondoaz eratutako izenondo elkartuak¹³) edo *-dun*. Kontrato adibideak ere badirela aipatzen da, ordea: *teilatu gorridun etxea*, *leihu gorridun txabola...*

b. Izen-multzoko izenak gorputz-atala adierazten badu (eta jatorrizko esanahia gordetzen badu), *-ko* atzizkiaz balia gaitzeko izenlagun kalifikatzailea sortzeko. Baina beste bi aukera ere baditugu: *-dun* edo Bahuvrīhi elkarteak; hau da,

begi urdineko mutila
begi urdindun mutila
mutil begi-urdina

aukerako formak dira (aurrerago esango dugu zerbait bakoitzaren emankortasunaz). Hasierako baieztapena («Holenako [izena + izenondoa + -ko] egitura duten izen multzoekin badirudi ez dela *-dun* atzizkia ibiltzen, ez eta forma konposaturik ere»), beraz, aski leuntzen da. Bestalde, Altuberen dotrina (jabeari nahitaezko ez zaizkion objektuak adierazten dituzten izenez osatutako izenmultzoek *-dun* dagokie) euskalki guztiak kontutan hartuz gero estuegia dela ere argi ikusten da.

c. Gorputz-atala adierazten duen izena, «jatorrizko esanahian erabili beharrean, zentzu ez-gauzazkoan edo aldatuan erabiltzen bada, edota ohiturazko tasunak edo kalitateak adierazten dituzten «argi», «eder», «bizkor», «on», «txar»,

¹¹ Guztiak *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I* (Eranskina), 52 orrialdetik hartuak dira.

¹² Altubek *gorputz astuneko gizona* ez zeukan oso egokitzat.

¹³ Ikus Azkue (1923-25: 592-593§), Villasante (1974: 18-19 or.) eta bereziki Euskaltzaindia (1991) *Bahuvrīhi elkarteak* kapitulua.

«gaizto», «gaitz» eta antzeko izenondoren bat badarama» *-ko* erator-atzizkia erantsiz izenlaguna osa dezakegu (eta hau da Altubek ontzat ematen zuen egitura bakarra), baina Bahuvrīhi elkarteaz ere balia gaitezke: *gizon mibi gaiztoa, jende mibi zorrotza...*

3. *-ren + izena + -ko*: horrelako egituretan *-ko* dugu aukera bakarra: *aze-riaren iduriko muturra, ene adineko mutikoxka, Afrikatarren itxurako arpegia...* Altubek egitura hau berariaz aipatu ez arren, *eskatu ez dugun gaidun idaz-lana* txartzat eman zuen, *eskatu ez dugun gaizko idazlana* zela zuzena esanaz.

4. *Zenbatzailea + izena + (izenondoa) + -ko*: zenbatzailea, zehaztua nahiz zehaztugabea, ageri den neurrian, *-ko* erator-atzizkiak baliatzen omen gara izenmultzo hori izenlagun kalifikatzaile bihurtzeko, baita izena [+biziduna] denean ere:

bost behatz ederreko eskua, 50 liberako amanda, amar urteko umiac, hitz gutxiko gizona, bi hankakoak, ongi axola gutikoak, milla ta berreun kiloko arria, 403 arimako herri ttipia, bi ugazabako etxea, bi etxekoandreko sukaldia, ehun ardiko artaldea¹⁴...

IV. BI AZALPENEI OHARRAK

Berehala ohartzen gara Altuberen dotrina ez datorrela bat, ez behintzat bere osotasunean, Euskaltzaindiaren gramatikan ematen diren azalpenekin. Bigarrena oinarri hartu eta atalez-atal joanaz, honako xehetasunak erantsiko genituzke:

1. *Izena + -ko / -dun* egiturez baldintza jakin eta zehatza ematen zaigu noiz erabili *-ko* eta noiz *-dun* jakiteko:

iz.[+abstraktua]*iz.* + *-ko* → izenlagun kalifikatzailea

iz.[-abstraktua]*iz.* + *-ko* → izenondoa

Dena den, abstraktu/konkretu bereizketaz gain, kontutan hartzekoa da *-dun* atzizkiaren “eute”, posesio-adiera, *-ko* atzizkiaren kasuan hain indartsua ez dena. Horrela ulertu beharko genituzke oinarrian izen abstraktua duten *arima-dun, fededun* bezalakoak (espezie batek *duen* ezaugarriaren adierazle direnak Altubek dioenez eta horrexegatik gabezia adierazten duten *arimagabe(ko), fedegabe(ko)*-ren aurkako direnak). Bide beretik, *bihoztun*, kontrako *bihozgabe* duena; edo *hiztun/hitzeko* bikotea, izen bihurtua lehena; “hitza duena” / “hitza betetzen duena”. Badira, ordea, izen abstraktuari *-dun* erantsiz sortutako izenondoak ere¹⁵:

«ustegabeko egi-itxuradun koxka batzuek bide dirala» (Etxaniz, *Lur berri billa*, 116. or.)

«ekaitz-itxuradun odeiari bota ta batzuetan kaskabarra bertan ez erortzea lortu izan dute» (*Nekazaritzako irakurraldiak*, 12. or.)

«euskerita-itxuradun leku-izen askogaz gogoratzen da» (Bitaño, *Bigarren Atalak*, 75. or.)

¹⁴ Berrero ere adibide guztiak *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I* (Eranskina), 56. orrialdetik hartuak dira. Hor agertzen dira testuinguruz hornituak, liburua eta orrialdea ere ematen direlarik.

¹⁵ Hemendik aurrera emango ditugun autore desberdinen aipamen guztiak *Hitz-Elkarketak/3* liburuko “Elkarte sintetikoak” eta “Bahuvrīhi elkarteak” kapituluetatik hartuak dira.

Salbuespenak salbuespen, joera nagusia izen abstraktuei *-ko* eranstea da, eta konkretuei *-dun*. Egia da halere, ez dela beti erraza izen bat konkretu ala abstraktu den esatea. Batzurentzat zenbatzaileekin edo neurri-sintagmekin elkar ezin daitekeen izena da abstraktua: *hainbat fede, bi fede* edo *bi kilo fede* esan ezin daitekeenez, abstraktutzat joko lukete batzuk *fede*. Beste batzuk esanahia hartzen dute oinarri, eta orduan are zailago gertatzen da konkretu eta abstraktuen arteko bereizketa, “inmateriala” bai, baina “abstraktua” ez bezalako definizioak eman daitezkeelako¹⁶.

Hona, azkenik, beste hainbat adibide Mitxelenaren idazlanetatik jasoak:

- «Esaera honen antzekoak erdaraz aurkitzen dituk: arbuia ditzagun horrelako erdakeria zantarrak» (*Esukal idazlan guztiak* IV, 42)
- «Peredak adina balio du agian beharbada Txomin Agirrek: ez da ordea orduan ere izango Cervantesen neurrikoa» (id., 43. or.)
- «Oraingo zenbait gizoni guziok beregan gauzkan Jainkoaren eskua ageri ez zaionez gero – gure Orixek agian inork ez bezala kantatu duen «esku legun begiduna¹⁷» – » (id., 22. or.)
- «Lurkoi eta fededun, atseginetan txoro eta ezbeharretan gizontasunez betea» (id., 24. or.)
- «Bestela esan, zordun gara zenbait kultura sailetan» (id., 43. or.)
- «Erruduna nor den jakiteak ez du axola handirik» (id., 43. or.)
- «Euskararen gehiagotasuna honetan omen datza: euskarazko hitz elkartuak eta erakarriak «ziodunak» izatean (*motivés*), alemanez gertatu ohi den bezalatsu» (id., 43. or.)

2. Izen-multzoa + *-ko* / *-dun*

2.a. [Izena + izenondoa] + *-ko* / *-dun* vs. *Bahuvrīhi* elkartea: izena eta izenondoa izatean oinarrian, hiru aukera ditugu lehian. Egia ote, salbuespenak salbuespen, oro har *-ko* atzizkia nagusitzen dela halakotan? Ez dirudi hala denik. Gortutz-atalak adierazten dituzten adibideak hurrengo punturako utzita, esango genuke 1. puntuko bereizketa zilegi dela oraingoan ere, hau da, izen-multzoko izena abstraktua denean *-ko* hartzeko joera gailentzen dela (Altubek ere hala erakutsi zuen¹⁸ nahiz tasunik ez aipatu bere formulazioan):

- «Teknika soilaren jabe egin garen euskaldunok itxuragaiztoko fabrikaz beste ditugu behinolako soro eta basoak» (Mitxelena, *Euskal idazlan...*, 45. or.)
- «Amesgileak nahiko ez direla -zori oneko Amesgileak!→» (Mitxelena, id., 26. or.)
- «Haien mintzoa (...) iraupe laburrekoa izango da» (Mitxelena, id., 27. or.)

¹⁶ Hara zer dioen Amado Alonso (1959) hizkuntzalariak gai hau dela eta: «ni la gramática ni la lógica han llegado nunca a establecer una división segura entre los nombres o conceptos concretos y los abstractos. Es más: ahora sabemos con certeza que esa seguridad es imposible, por la naturaleza misma del tema» (*Gramática castellana*, Buenos Aires, Losada, decimosexta edición, 39. or.)

¹⁷ *Begidun* izenondoaren ondoan *begiko* ere badugu, gehienetan *begiko izan* egituraren erabil-tzen duguna, hau da, atributu-sintagma osatuaz. Garbi dago, ordea, lehenak duen “cute” zentzu-rik ez duela bigarrenak, balio metaforikoa hartzen duela *begiko izan* egiturak.

¹⁸ Ikus *-dun* atzizkiaren erabilera txartzat eman ondoren, zuzen dauden egituren artean aipatzen dituen *entzute aundiko*, *zori-oneko*, *zori-gaiztoko*, *fede orzeko*; *buru argi*, *adimen zoli eta biotz andiko*.

Kontrako adibideren bat edo beste bada, dena den:

- «orren griña txardunak dira?» (*Euskalzaile* I, 163. or.)
- «gure artzain on-uste osoduna» (Kirikiño, *Egunekoa*, 26. or.)

Izen-multzoko izena konkretua denean, aldiz, ez dugu bat ere garbi ikusten joera nagusia *-ko* denik:

- «eguraldi sargoritsuak edo eguzki berodunak izaten dira deun Andoni egunak» (Mogel, *Peru Abarka*, 28. or.)
- «Ortarako leka-azidun landare azkera aundikoak jarri ostu aundidunak, ta landareak loretu diranean lurperatu» (*Nekazaritzako irakurraldiak*, 26. or.)¹⁹
- «lurrestelduna, lurrustel asko duanak» (di., 17. or.)
- «zure elizatxu ta etxe margo zuridunak? Zure txorien kantu gozo ta legunak?» (Zamarripa, *Gora begira*, 100. or.)
- «Eskonduten zara, lirio biguna: ta senarrgeia dozu piperr zarr minduna» (Azkuea, *Parnasorako bidea*, 137. or.)
- «Saltatu zuen polo desberdindun bi munduen arteko xinpartak» (Larraun, *Hil ala bizi*, 34. or.)
- «Zapatia esaten jaco oñetaco zoru sendodunari» (Mogel, *Peru Abarka*, 94. or.)
- «eguraldi ozkarbi eta kolore biziduna baita» (Etxaide-Ithart, *Usoa Alosterreko*, 8. or.)
- «Geienak ezkonduak eta seme-alaba azidun gurasoak ziranez» (Etxaniz, *Lur berri billa*, 118. or.)

eta egun hauetan irratian entzuten dugun iragarkia:

- «Emental... zulo-handidun gazta»

Bestalde, Bahuvrîhi elkarteak ere aurki ditzakegu, oinarrian izen konkretua nahiz abstraktua delarik:

- «Oroit adi, oroit, gizon bizi-labur, lur pixkat aizela, autsa ez bertzerik» (*Gerra-ondoko euskal poesiaren antologia* (1945-1964), 74)
- «Lece aho meharra» (Etxebarri, *Manual Devotionezcoa*, 102. or.)
- «Erabili dudan eta darabildan hizkuntza, honen bestez, ez da *grauzkio*-motza *grauzkio*-gabea baino»
- «(Etxe txikitxo) aintzin churi bat» (Etchemendi, Lafitte, *Kantuz*, 42. or.)
- «Pillota-toki albo-zabalean» (Lizardi, *Itz-lauz*, 45. or.)
- «Atera zuen andi pipa kerten motz bat» (Apaolaza, *Patxiko Txerren*, 24. or.)

Altubek ere *adimen laburdunak* gaitzetsi ondoren, *adimen-laburrak* eman zuen ordain zuzentzat, nahiz *adimen laburreko* hori bezain zilegi izan.

2.b. iz.[+gorputz-atala/jantzia]_{jiz.} + izenondoa + *-ko*: izen-multzoko izena gorputz-ataleki edo jantziei dagokienean, berriz, *-ko* atzizkia baino sarriago ikusiko dugu *-dun*, mendebaldeko testuetan bederen, nahiz ekialdeko adibiderik ere ez den falta:

- aho lasaidun (Agirre Asteasukoa), atorra dotoredun (Koldo Mitxelena), arpegi ederdu (*Euskalzaile*), azal ederdu (Kirikiño), azkazal garbi gorritadun (Lizardi), begi-argidun (Arrue),

¹⁹ Adibide berean *azkera* izen abstraktuari *-ko* dagokio, baina *ostu* izen konkretuari *-dun*. izenondoa bietan *bandi* izanik. Gerta daiteke, noski, atzizki bera ez errepikatzeagatik erabili izana batean *-ko* eta bestean *-dun*; baina, halere, esanguratsua iruditzen zaigu zein izen-multzori erantsi zaion bata eta zeini bestea ikuste.

begi bixidun (Etxaide-Ithart), begi urdin ederdu (Bitaño), bizarzuridun (Bitaño), bruxa beztun (Saizarbitoria), narru baltz eguzkitsudun (*Tercer Congreso de Estudios Vasco*), estalki zuridun (Apaolaza), egal biribil ta lucedun (Mogel), ile harrodun (Jean Etchepare), jantzizuridun (Bitaño), pañuelo zuridun (Alkain, Zavala), prakazardun (Urruzuno)

edo Bahuvrîhi elkarteak:

abarka zar, aho-zabal, Atorra zaar, Prakerre, aurpegi-luze, begi-illun, begi-alai, buruzuri, begibakar, begibeltz, muxugorri, begi-bizi, okotz-zorrotz, begi busti, kopet illun, begi eder, okotzaundi, begi-ezkel, begi-gorri, begi-urdir, belarluce, belarri-motz, anka-motz, esku-motz, besamotz, betaurreko-aundi, bizar-beltz, bizargorri, kaskazuri, bizar luze, bizkar guri, buztan-motx, praka-zabal, gona-motz, gerrieder, ankaluze, ankamei, ille-arro, ille kixkur, ille-motz, ipur baltz, iztar-nagi, titi-aundi...

etabar luzeak erakusten duen legez. Hortaz, «euskalki gehienetan *-ko* erabiltzen da *-dun* atzizki horren ordez» (*Euskal Gramatika...*, 53. or.) esateak gehiegizko dirudi. Areago, Villasantek (1974:18) Bahuvrîhi elkarteak aztertzean dioenez: «Se dice *Buru-handi*, en lugar de *Gizon buru-handidun*».

2.c. iz.[+gorputz-atala]_{iz.} zentzu aldatuan: izen-multzoko izenak jatorrizko adiera galdurik ere, *-dun* atzizkia erantsi zaio egitura osoari ondoko adibideetan, nahiz ez genukeen esango hori dela joera nagusia:

«Ezpada biotz garbidun ezjaquinac argui eta garbi icusten zutela» (*Liberalen dotriña pecatu da*, 70. or.)

«Guk ez dogu ezagutuko gizagurentzat, biotz gogorduntzat...» (Kirikiño, *Egunekoa*, 24. or.)

«Biotz andidun neskatilea, galanta gorputz ta arimez» (Zamarripa, *Gora begira*, 111. or.)

Garbi dago, bestalde, Euskaltzaindiaren gramatikan esaten den bezala, Bahuvrîhi elkarteak ere osa daitekeela izen-multzoko izenak zentzu figuratua hartu duenean:

begiluze, begi eder, biotz-illun, esku-atsegin, biotz-zabal, eskuzabal, buru-bero, buru-arin...

3. *-en* + izena + *-ko* / *-ko* + izena + izenondoa + *-dun*: badirudi izenaren ezkerretan *-en* izenlaguna doanean *-ko* eransten zaiola, izena bera ere abstraktua izan ohi da (*antz*, *itxura*, *iduri*...); horrelako izenek hain zuzen, nolabaiteko alderatze edo konparazioa dakarten neurrian, gehienetan “zeren” antzeko, itxurako, iduriko... d(ir)en zehaztuaz erabiltzen ditugu (ikus gorago Mitxelenaren adibideak *Cervantesen neurriko eta esaera honen antzekoak*). Hemen sar ditzakegu *gogoko laguna*, *hautuko neska* bezalakoak ere sarri *-en* izenlagunaz azaltzen direlako. Baina honen ondoan *-ko* izenlagunaz, izenaz eta izenondoaz osatutako egitura ere aurkitu dugu bi adibidetan, bietan izen konkretua eta *-dun* atzizkia ageri zaigularik:

buruko ille luze dunak (Zubillaga), edurrezko esku zuridun (Bitaño)

4. Zenbatzailea + izena + (izenondoa) + *-ko* / *-dun*: zenbatzailea ageri den heinean *-ko* da oro har baliatzen dugun atzizkia Euskaltzaindiaren gramatikak dioen bezala.

Altubek, zenbatzailea daramaten egituretan ere nahitaezko, berezko/aldi bateko objektuak bereizi zituen, lehen kasuan *-dun* erabiltzea zilegi zela esanez. Testuetan, ordea, era guztietako erabilera ikus daitezke: harrigarri egiten zaigun *emeretzi urtedun*, Altubek txartzat emango lukeen *lau langadun ateka* eta nahi-

taezko ez diren objektuen sailean sartuko lituzkeen *bi gorringodun* edo *ogei-etxedun*:

(arraultza) bi gorringodunak (*Nekazaritzako irakurraldiak*), bustin askodun (*Nekazaritzako...*), elebidun, emeretzti urtedun («Bordari»), ogei-etxedun (norbait) (Orixe), edozein irabazpidedun euskaltzale (Lizardi), kare gutxidun (*Nekazaritzako...*), lau langadun ateka (Larraun), lau zango luzedun ehomakina (Larraun), ahalguztidun...

Gogoan izan behar da, dena den, *-ko* edo *-dun* atzizkien arteko aukera ez dela ezinbestekoa. Beti dugu eskuera erlatibo-egitura:

«Bibliografia alde batetik zaletasun edo afizio bat da, diru asko duen jendeari dagokion zaletasuna» (Mitzelana, *Euskal...* IV, 58. or.)

esan zuen lasai asko Mitxelenak, *diru askoko /diru askodun* hautura makurtu beharrik gabe.

Eta Euskaltzaindiaren gramatika aipamenik egin ez arren, badira zenbatzaile eta guztiko Bahuvrihi elkarteak, Azkueren (1923-25: 593§) ustez *-ko* atzizkia ezabatuz sortu direnak. Villasantek (1974: 19) atzizki-ezabaketa aipatu gabe, «zenbatzaile + izena» egiturako posesiboak aztertzen ditu:

amarratz, hiru hortz, ehunzango, hamalau zango, lau-begi, lau hotz, zazpisuete, ehunosto, Irutxulo, lauburu, amalauzaku

Baina kontuan izan behar da guzti hauek izenak direla, «hamar hatz», «ehun zango», edo «hiru hortz» izatea ezaugarri nagusizat harturik gauza, tresna, landareak... izendatzeko sortu diren hitz elkartuak, ez *-ko* atzizkiaren bidez sortzen diren izenlagun kalifikatzaileak (*bederatzi urteko haurra* etab.).

Aztertu berri ditugun egitura hauek sortzen duten beste galdera bat oinarriaren kategoriaren gainekoa da: izenlagun kalifikatzaileak sortzen dituen *-ko* hau izen-multzoari ala goragoko kategoriaren bati eransten zaio? Alde batetik Traskerek (1985:171) oinarria izen-multzoa dela dio:

«iruditzen da, beraz, *-ko* atzizkia hartzen duena ez dela izen sintagma mugagabe bat, ezta ere adizlagun bat, baizik eta beste zerbait. Eta hau zer da? Nere ustez, argi dago: *izen multzoa* da. Izen multzoa (ingelesez: N-bar²⁰) deitzen zaio kategoria sintaktiko bati, izena baino handiagoa baina izen sintagma baino txikiagoa baita»

Egitura honen barnean izena eta adjetibo sartzan ditu, baina ez du eztabaidatzen ematen dituen *hortz biko haitzurra*, *hiru urteko umea* edo *hamabi urteko whiskia* adibideetan zein litzatekeen erator-atzizkiaren oinarria.

De Rijk-en (1988:80) iritiz, oster, *-ko*-ren oinarrian zenbatzaile eta kuantifikatzaileak (hau da, zenbatzaile zehaztu eta zehaztugabeak) agertu ahal izateak erakusten du atzizki hau izen-multzoa (barradun I) baino goragoko kategoriari eransten zaiola, izen-sintagma mugagabeari (Euskaltzaindiaren gramatikako terminologiaz baliatzearen):

«What actually precedes *-ko* in this type of example is a subset of N^{max} from which definite noun phrases appear to be excluded—a subset not coinciding with any intermediate projection on N»

²⁰ Ikus Jackendoff 1977: *X' Syntax: A Study of Phrase Structure*, Cambridge (Mass.) MIT Press

Garbi dagoela dirudi izen-multzoa baino goragoko egitura dela *hiru urteko umea* bezalako adibideetan oinarria, zenbatzailearen ondoren izena eta izenondoa kategoria-segidak erakusten duen legez. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I* (E-ranskina) liburuan ere *-ko*-ren oinarri izan daitezkeen bi egitura desberdin bezala ematen dira: izen-multzoa + *-ko* batetik, eta "zenbatzailea + izena + (izenondoa) + *-ko*" bestetik. Baina De Rijk-ek berak aitortzen duenez izen-sintagma mugatua ezin bada inoiz oinarri izan, N^{\max} horren bi azpimultzo izango genituzke oinarri: zenbatzaile eta guztikoa eta tradizionalki izen-multzo deitu duguna, izenaz eta izenondoaz soilik osatua. Eztabaida guzti hau, noski bete-betean dagokio *-dun* atzizkiaren oinarriari ere.

Azkenik, nolakoa da izen-sintagma mugagabeari eransten zaion *-ko* hori? Izan ere, hiru *-ko* bereizi ditugu:

1. Adizlaguna + *-ko*, zeharo emankorra delako eta oinarrian sintaxi-kategoria duelako ohizko erator-atzizkitzat hartu ez duguna.

2. Izena + *-ko*, kategoria lexikal bati erantsiz beronen azpikategorizazioa aldatzen duena eta beste erator-atzizki batzurekin jarraian erabil daitekeena.

3. (Zenbatzailea) + izena + (izenondoa) + *-ko*, izenaren proiektzio gorenaren bi azpimultzori eransten zaiona, ikusi dugunez²¹. Nolakoa da *-ko* hau?

Trask-ek (1985: 171-172) *deribazionala* dela esan zuen, "adizlaguna + *-ko*" egituraren pareko emankortasunik ez duelako:

«Beste hitzez, *bi konstrukezio desberdin* ditugu euskaran: lehenengoa, adizlaguna plus *-ko*; bigarrena, izen multzoa plus *-ko*. Lehena zeharo produktiboa da: *zeinmahi* adizlagunek *-ko* atzizkia hartu ahal du, semantikak uzten baldin badu; bigarrena, ostera, ez da zeharo produktiboa: *beso ederreko pilotaria* bai, baina **beso luzeko pilotaria* ez; *osasun ederreko mutila* bai, baina **ama ederreko mutila* ez; *bihotz biguneko andrea* bai, baina **begi urdineko andrea* ez. Zelako konstrukezioa da bigarren hau? Argi dago: *deribazionala* da. Hau da, bigarren konstrukezio honetan, *-ko* atzizkia deribazionala da, beste atzizki asko bezalaxe: *-dun*, *-tsu*, *-kor*, *-koi*, etab. Aldera-*dun* atzizkia: honek ere izen multzoa eskatzen du. Beraz,

²¹ Trask-ek bereizi zituen lehen eta hirugarren saileko *-ko* horiek desberdinak direnik ez du uste De Rijk-ek (1988:80-82). Bere ustez *bihotz oneko andrea*, *hogeitabost urteko gizona*, *zazpi laguneko taldea* egituretako *-ko* ere adizlagunari, kasu-marka sozietiboa duenari, erantsi zaio, ondoren, adizlaguneko ardatzaren eta hurrengo izen-sintagmako ardatzaren arteko erlazioa oso estua denean, kasu-marka hori ezabatzen delarik, inesiboarekin gertatzen den bezalaxe; erlazioa hain estua ez denean, axalekoagoa denean, gorde egiten da kasu-marka (*oso bihotz oneko emakumea* / *Madrilekiko loturak*) Beraz, **bihotz onarekiko emakumea* - *bihotz oneko emakumea*, **mendiangor txabola* - *mendiko txabola*. Euskaltzaindiaren gramatikan (1987:54) ere aipatzen da zenbait lekutan soinean daramagun janzki izena eta izenondoa egiturak ditugunean, *jantzi gorriko gaztea*, *jantzi gorria(re)kiko gaztea* eta *jantzi gorria(re)kilako gaztea*, guztiak aurki daitezkeela. De Rijk-en iritziz, janzki-izenen eta hauek daramatzatenen arteko lotura-maila erdibidean legoke; horregatik omen dira zilegi bi egiturak. Auzi honetan gehiegi murgildu gabe, azpimarra dezagun: a) badela emankortasun-mailako desberdintasuna gutxienik *-ko* baten eta bestearen artean, eta b) inesiboaren kasuan *-n* bakarrik ezabatzen dela (ez mugatu pluralean eta mugagabearen aurretik hartzen duen *-ta-*); sozietiboa ezabatzean, aldiz, artikulua ezabatzea ere nahitaezkoa da.

gona gorridun neska bai, baina **gona gorriadun neska* ez, **gona gorriakdun neskek* ez, **gona gorri haudun neska* ez, etab. Gainera, atzizki hau ez da zeharo produktiboa: *gona gorridun neska* bai, baina **osasun ederdu neska* ez; *kotxe berri* bai, baina **ikuspuntu berri* ez. Ibilera hau nahikoa tipikoa da hizki deribazionalekin».

De Rijk-entzat (1988:83), ostera, ez dago bat ere argi bigarren *-ko* horrek emankortasun osoa ez duela; eta hala balitz ere, mugak semantikan oinarrituz azaldu ezinik ez legoke.

Modu batera nahiz bestera, ezin uka daiteke bigarren *-ko* honen erabilera askoz mugatuagoa dela. De Rijk-en ikuspuntua onartuta era, kasu-marka soziati-boa ezabatzeke bi ardatzen (adizlagunekoaren eta hurrengo izen-sintagmakoa-aren) arteko erlazioaren lotura-maila hartu behar da kontutan; inesiboa ezabatze-ko, aldiz, ez dago halako baldintzarik. Bestalde, ikusi dugunez, kasu-marka gordeaz adizlagunari eransten zaion *-ko*-k ere ez du inolako mugarik.

Emankortasun-kontuak alde batera utzirik, izenlagun kalifikatzaileak sortzen dituen *-ko* ez zaio kategoría lexikalari lotzen, goragoko kategoría bati baino. Eta, nahiz izenondoen pareko funtzioa duen kategoría osatu, izenondoarekin koordinazioan ere ager daitekeena (*bihotz onekoa eta sotila*), ez du ondoren edozein izenondok onartzen duen erator-atzizkia hartzen: *sotiltasun* vs. **BIHOTZ ONEKOTASUN*. Ez da, beraz, *-tasun*, *-keria* etab. bezalako erator-atzizkia.

Azkenik beste datu bat ere izenlagun kalifikatzaileak sortzeko *-ko* erator-atzizki ohizkoen pareko ez dela erakutsiko lukeena: Azkuek (1923-25: 47§) dioenez, oinarriaren eta erator-atzizkiaren artean ez da lotura-bokalik agertzen, izen-sintagma eta kasu-markaren artean agertzen den modukorik. *Adurti* esaten da, beraz, ez **adurreti*. Ikusi ditugun adibideetan, aldiz, *iraupen labur* + *-ko* egituran *-e-* lotura-bokala txertatzen da *iraupen laburreko* esanez; bide beretik *jenio txarreko*, *osasun ederreko* etab.

V. -KO / -TAKO

Inesibo kasu-markako adizlagunari eransten diogun *-ko* atzizkiak hiru forma desberdin dituela pentsa dezakegu (eta hala azaldu izan da behin baino gehiagotan): *-ko* / *-tako* / *-etako*. Desberdintasun horiek inesibo-marka hartzen duen izen-sintagma mugagabea, mugatu singularra edo mugatu plurala izatetik sortzen dira, ordea; ez dute *-ko* berarekin loturarik:

- (1) Gure herrian jende arraro asko bizi da - gure herriko
- (2) Zenbait menditan pinua besterik ez da ageri - zenbait menditako
- (3) Donostiako kaleetan eskale asko ikusten da - Donostiako kaleetako

-n marka da soilik ezabatzen dena, ez aurretik hartzen duen *-ta-*. Horregatik zenbatzailedun egiturari (nahiago bada zenbatzailedun izen-sintagma mugagabe-ari) *-ko* eranstea, ez dago *-ta-* infijoarentzat lekurik (esan bezala, *-n*, *-ra*, *-tik* kasu-markei dagokien ezaugarria da-eta). Horixe da “zenbatzaile + izena + (izenondoa) + *-ko*” egiturako adibideetan ikusi duguna: *bi hankako*, *milla ta berreun kiloko*, *hirur mila liberaco...*

Baina Euskaltzaindiaren gramatikan aipatzen den bezala, zenbatzailedun egiturei erantsiz izenlagun kalifikatzaileak sortzen dituen *-ko* horrek *-tako* forma hartzen du batzutan itxuraz «leku-genitiboko izenlagunen arauera eta horien analogiaz»²², batez ere zenbatzaile zehaztuak direnean:

urthe batetako haurra (Axular), laur egunetako hil kirestua (Axular), berrogei ta zenbeit urtetako gizon bat (Etxepare J.), thonba lau kantoinetako batzuk (Axular), bi urthetako [arbola landare]ak (Duvoisin)²³

Guti zenbatzaile zehaztugabearekin ere aurkitzen da *-tako*:

pairu gutitako [zahartasuna] (Axular), ezagutza gutitako [bihotza] (Axular), probetxu gutitako [esperantza] (Axular), fidantza gutitakoa (Axular)

Ohar gaitetzen adibide guztiak ekialdeko autoreenak direla (eta hor ere diakroniaren ikuspuntutik azterketa sakonagoa egin beharko litzateke, garai bateko idazleek eta oraingoek maiztasun beraz erabiltzen zuten *-tako* ikusteko.

Baina *-tako* zenbatzaierik gabeko egiturei, izenaz eta izenondoaz osatutako erantsia ere aurki daiteke:

aire handitako andre bat (Laphitz), probetxu handitako [gauza] (Axular), mengoa handitako gauza (Duvoisin), seinale onetako aratcheak (Duvoisin), aiphamen handitako amerikano bat (Duvoisin)

Berriro ere ekialdeko adibideak dira guztiak; ez hori bakarrik, izenondoa bera ere ia guztietan *handi* da (eta behin *on*), izen abstraktuari lagunduz doana. Erabilera nahikoa mugatua dela esan daiteke, beraz.

Aldera ditzagun, ordea, Euskaltzaindiaren gramatikan ematen zaizkigun adibide hauek, Haraneder-en *Jesu Christoren Evangelio Saindua-ko* beste hauekin, non *-tako* erabiltzen duen idazleak bai zenbatzailedun, bai zenbatzailegabeko egituretan:

- «Icussi nuen berriz bertce aingueru bat indar handitacoa jausten cela, cerutic» (532. or.)
- «Eta icussi nuen aingueru bat bothere handitacoa deyagoraz erraten çuena» (524. or.)
- «ez da hori ceben baithan berezgune eguita bataren eta bertcearen artean eta pentsu gaixotaco juge içatea?» (477. or.)
- «Gloria bedi, bada, gure anayeticar condicione beheretaco dena bere goratassunaz» (475. or.)
- «Baldin nihorc bertcela iracasten badu (...) superbio bat da, deussic ez daquienna, izpiritu flacotacoa» (436. or.)
- «Cergatic icitcen çarete, guiçon fede aphurretacoac?» (20. or.)
- «Aurkhituric, bada, perla bat balio handitacoa» (32. or.)
- «Guiçon fede gutitacoa, cergatic jarri ere haiz dudatan?» (34. or.)
- «ordean ez baidute erroric bere baitan, iraupen gutitaco dire» (76. or.)
- «Eta ez çuten haurric, ceren agorra baitcen Elizabeth eta biac baitciren adin handitacoac» (107. or.)
- «Gloria Jaincoari ceru gorenetan eta baquea lurrean guiçon bihotz çunenetacoeci» (111. or.)
- «Dohatsu bihotz garbitacoac, ceren hec baidute icussico Jaincoa» (12. or.)

²² Hau hala bada, nola uztar daiteke analogia hau De Rijk-en ustez azpian legokeen soziati-boarekin?

²³ Adibide guztiak *Euskal Gramatika...57.* orrialdetik hartuak dira.

- «Guiçonac, icusten dut itsasoaan ibiltzea nekhetsu içaterat dohacula eta perill handitaco» (285. or.)
«Ez baidut nihor enequien hain gogo berdiñetaco denic, ez hain bihotz garbiz çuentçat intressatcen denic» (403. or.)
«errepreni çatçue izpiritu nahassitaco direnac, consola çatçue gogo chumetaco direnac» (422. or.)
«Ecen gorputceco hariquetac probetchu gutitaco dire» (433. or.)
«igorri çuen Bethleemen eta hango inguru gucietan hiltcerat bi urthetaco eta gutiagotaco ciren haur guciac» (7. or.)
«Orduan Jesusec erran cioen ehun guiçonetaco capitaiñari» (19. or.)
«bada jan içan çutenen nombrea cen bortz milla guiçonetacoa, emasteez eta haur chumeez landa» (34. or.)
«Altchatu cen berehala nescatcha eta hasi cen ibiltcen, hamabi urthetacoa cen ecen» (79. or.)
«icussi nituen hartan lurreco aliamalia laur çangotacoetaric, bassa bestietaric eta herresten dabilçanetaric eta bai aireco hegastinetaric» (248. or.)
«Alhargunen herruncan ibenia içateco hautatua içan dena ez bedi içan hirur hogoi urthe baiño gutiagotacoa» (434. or.)
«Bicia da ecen Jaincoaren hitça eta eraguillea, eta den azpata bi ahotacoric baiño cilhacorragoa» (455. or.)
«ussain onetaco çur mota guciac, (...) ur ussain onetacoa» (546. or.)
«salbatu içan gaitu (...) bere urriclarendua gatic, sortce berritaco bathayoaz eta Izpiritu Sainduazco erreberritce» (448. or.)
«Hec alabainan egun gutitaco den bicitce baten ariaz gastigatcen gunituzten nahi çuten beçala» (469. or.) (nahiz *egun* ez izan abstraktua)

Areago, Haraneder-ek izenarekin nahiz partizipioarekin doan *gabe* postposizioari ere *-tako* eransten dio:

- «Antçutcen da ecen aiteciñagoco leguea, ceren den herbala eta probetchu gabetacoa» (460. or.)
«içan çaitzentçat errançuiçunic gabetaco eta garbi» (403. or.)
«Buru gogorrac, bihotz eta beharri circoncidatu gabetaco jendeac» (238. or.)

Izen abstraktuaren ondoren *-tako* darabil, azkenik, ondoko adibideetan:

- «gasteac trata çatçu çure anayac beçala: emastequi adinetacoa çure ama beçala» (434. or.)
«Urratu içan du contra guinduen cedula eta borrratu ossoqui gure condenacionetaco meçua, itçaturic hura bere gurutceari» (411. or.)
«Passientciataco eta consolacionetaco Jaincoac, bada, diçuela gracia sentimendu berac içateco elkharrentçat Jesuchristo baitan» (318. or.)
«Esparantcetaco Jaincoac, bada, bethe çaitçatela bozcarioz eta baquez» (318. or.)
«Ez da hura, baiñan haren iduritaco bat da» (193. or.)
«Ceruetao Erresuma guiçon baten iduritaco eguin da, ceinec erein içan baiduque haci ona bere landan» (31. or.) (Orrialde berean, «Ceruetao Erresuma mustarda haciaren idurico da»)
«Noiz ere ordean bathuco baitçaitçue, liburu Sacratu haü iracurtcean, cembeit gauça aditcen ez duçuënic, çaquizcote arguitaco Aitari» (2. or.) (Baina honen ondoan «ecen mundu huntaco haurrac habillago dire bere eguitecoen erabiltçan, ecen ez arguico haurrac» 147 or.)

Ekialdeko XVI, XVII, XVIII... mendeetako autoreen azterketa xeheak beharko genituzkeen arren, badira zenbait aztarna Haraneder-en hizkera garaiko erabileraren ispilu dela erakutsiko luketenak:

Egundaino yçan daya ni bai dichatacoric? (Etxepare), ni nisan besain sori gaizetacoric (Oihernart), behatu gaitzetaco (Leizarraga), vicitze gaichtotacoec (Leizarraga)

Horrenbestez, eskuartean ditugun datuetan oinarrituz esan dezakegu:

1. *-tako* dela *-ko*-ren ordez sarri aurkitzen den forma (Haraneder-en kasuan nabarmenki nagusitzen zaioz *-ko* formari. Gainerako autoreetan adibide bakanak baino ez ditugunez, zaila zaigu *-ko* / *-tako* formen alderaketa egitea).
2. *-tako*, zenbatzaile zehaztuz osatutako egiturari eransten zaio batetik, eta izenaz gehi izenondoaz osatutakoari bestetik; baina bigarren kasu honetan, izena abstraktua da oro har, eta izenondoa ere halako izenekin elkartu ohi dena da (*handi, gaixto, apur...*) ez kolorea edo neurri fisikoa adierazten duena (*gorri, urdin, argal, lodi...*). *Guti* zenbatzaile zehaztugabea ere bigarren zakuaren sartuko genuke, izen abstraktuen ondoan agertzen denez. Izena konkretua denean, aldiz, *-dun* dela aukera dirudi (baina adibide bakarra aurkitu dugu; beraz, ezin dugu hipotesia erabat baieztatu):

«hobe da çuretçat sartcea bicitcean escu bakhoitzdun, ecen ez bi escu ditutçula goatea ifernurat» (89. or.)

3. Izena soilik dugunean ere, abstraktua den heinean, *-tako* eransten dio Haraneder-ek.

Etxepareren adibideaz gainera, beste autoreen jokabideari buruzko datuak beharko genituzke; baina argi dago izena konkretua denean, “eutea” adierazteko *-dun* atzizkiak baliatzen direla, Axular edo Oihenart-en *zaldun, zordun, hobendun, kargudun, beso mindun* etab.ek erakusten duten bezala. Bide beretik izena abstraktua izan arren, *eskerdun* dio Oihenartek (154.erretraua) kontrakoa *eskergabe(ko)a* lukeelako.

4. *-tako* formaren erabilera (analogia bidezko datekeena) errazago uler daiteke agian, Haraneder-ek izen abstraktuekin, aurretik *-en* izenlaguna daramatenekin ere, *-tan*²⁴ (edo *-taco, tarat*) zein maiz erabiltzen duen ikusiz gero:

fedaren bozcariotan (402), çuen aiticnamendutan (402), hunen laudoriotan (1), hunen abantailletan (1), hunen orhoitçapenetan eta laudoriotan (60), çuen onetaco da (499), bekhatuen barkhamendutan (110), çure icenaren ohoretan (318), Eliçaren probetchutan (343), haucitan hari (14), espantutan jarri (19), dudatan jarri (33), nigarretan egon (55), bekhatutan sorthu (194), hatsbeherapenetan egon (546)...

Ez da Haraneder-en jokabidea bakarrik; beste autore batzuren adibideak ere baditugu; hona Leizarragaren pare bat:

burutan ilki, onetacotz recebitu

Erabilera hau izenaz + izenondoaz osatutako sintagmetara ere hedatzen da; baina, hemen ere, *handi* da gehienetan ageri zaigun izenondoa:

arropa churitan ibili (521), habarrots handitan icussi (22), hitz estalitan mintçatu (30, 76, 127) vs. hitz estalietan (31), lauster handitan sarthu (81), tresna churitan icussi (218), pena handitan ciren (233), herstura handitan içan (355)

²⁴ Ikus *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-I* (133-134, 365. or.) izen-sintagma mugagabeari eransten zaion *-n* kasu-markaz.

Halakoa da Oihenarten hau ere: *beldur handitan*.

Beste batzutan, egituraren arabera izen-sintagma mugatutzat hartuko genukeenari (singularra nahiz pluralari), *-tan* eransten dio Haraneder-ek:

gau erditan (57, 99, 135, 261, 286), Abia apheçaren alditan (107), goardia alditan (111), bere toquitarat bihurtu (218), cein bere toquitarat barrayatu (210), ilhumbetarat, odoletarat gambiatu (226)...

Leizarragarenak dira, aldiz, ondokoak:

eliçaren edificationetan empletatu, bere gloriaren avançamendutan eta çure suietten edificationetan... conservatu, haren desohoretaco den, haren ohoretaco dena

Azken adibideek erakusten dutenez idazle bakar batena baino askoz zabalagoa datekeen erabilera hau, mende horietan eta bereziki ekialdean izen-sintagma mugagabeak zuen hedadura gaur baino askoz handiagoaren beste lekuko bat baino ez dira²⁵. Irigoyenek (1978: 743-744), Leizarragaren *vicitze gaichtotaco* izenlaguna dela eta, mendebalderako *ate biko etxia, iru ateko etxia* formak ematen ditu, **iru urtetako semia* edo **ate bitako etxia* bezalakorik ez dela erabiltzen argituaz. Baina honen ondoan, zenbatzailerik gabeko egituretan *-tako* erabiltzen dela dio: *gerizpetako, ilunpetako, uretako, eguzkitako* etab. Azken hauek *-tan* (*euritan, eguzkitan, ilunpetan...*) + *-ko* dira noski; mugagabea inesiboari zor zaioz, ez *-ko* atzizkiari.

Zenbatzaile zehaztua duten sintagmeia *-tako* eranstea ez da, dena den, ekialdera bakarrik mugatzen. Erabilera zabalago horren lekuko, hona Mitxelena azken adibide bat:

«Iztuetari, esate baterako, sinetsi behar baldin badiogu, eta ez da aspaldiko kontua, duela ihun eta hoge eta bost urtetako kontuak dira» (Mitxelena, *Euskal...* IV, 58. or.)

VI. LABURBILDUZ

Aztergai izan ditugun bi atzizkien *-atzizki* izenondo-sortzaitzat hartu izan den *-dun* eta izenlagun kalifikatzaileak sortzen dituen *-ko-* erabilera hainbat orrialdetan zehar esan eta idatziak laburbilduz, ondoko zehaztapenak egin behar ko lirartekeela uste dugu:

1. Izena oinarri denean:

- a. Izen konkretua + *-dun* (*bizardun, senardun, kargudun, zaldun...*), izenondo (askotan izen-balioa hartzen dutenak) ugari sortzen dituena.

²⁵ Atributu-sintagma mugagabea ere garai batean orain baino askoz hedatuago zegoen. Ikus Mitxelena 1978: «Miscelánea filológica vasca. I» *Fontes Linguae Vasconum* X, 29, bereziki 208-218 or.

- b. Izen abstraktua + *-ko* (*edadeko, itxurako, adineko...*), baina oso gutxi dira horrelakoak. Multzo handixeagoa eman dezakeena oinarrian “partizipioa + *behar(ra)*” egitura duena da (*irentsi beharrekoa* etab.):
«edozein haizetxok itzal dezakeen su ahul bat besterik, ezerezak luzaro gabe deuseztatu eta irentsi beharrekoa» (Mixelena, *Euskal...*, 22. or.)
- c. Agian goiko bereizketaren gaineratik izatea, “eutea” vs. gabezia, ez izatea, adierazteko *-dun / gabe(ko)a* delako oposizioa. Horregatik *fededun, eskerdun* vs. *fedegabe(ko), eskergabe(ko)*.

2. Izena + izenondoa

- a. Izena abstraktua denean, edo konkretua izan arren zentzu aldatuan erabiltzen denean, oro har *-ko* (*neurri gaitzeko, hots handiko, jite txarreko...*), nahiz *-dun* erantsirikoa adibideren bat edo beste baden. Bahuvrñhi elkarteak ere ageri zaizkigu (*gizon bizi-labur, adimen-laburrak gaisoak*), baina pertsoneri dagozkien izenondoak osatzeko bakarrik erabil dezakegula dirudi (*mintzo iraupen-laburra???*) eta orduan ere ez dugu beti aukeran (*emakume jenio-txarra???*).
-ko da beraz aukera nagusia izena abstraktua denean, eta emankortasun urriagoz izenondo elkartua.
- b. Izena konkretua denean *-ko* eta *-dun*, biak ditugu aukeran. Agian euskalkien araberrako bereizketaren bat egon daiteke, *-ko* ekialdean ugariago izanik, eta *-dun*, aldiz, mendebaldean; izenondoak ere baldintza dezake aukera, *eder, txar, gaizto...* bezalakoan ondoren *-ko* agertzeko joera gailentzen da eta. Bahuvrñhi motako izenondo elkartuak ere erabil daitezke (*lece abo meharra, etche aintzin churia...*); halako egiturak oso ugariak dira batez ere izenak jantziak edo gorputz-atalak adierazten dituenen (*abarka zar, ille-arro, begi-beltz* etab. luzea)

3. Zenbatzailea + izena + (izenondoa) egituretan *-ko* nagusitzen dela dirudi nahiz batez ere mendebaldeko testuetan *-dun* atzizkiak osatutako adibideak ere ageri diren. Dena den adina, prezioa, neurria, tamainoa... adierazteko *-ko* gomendatuko genuke betiko erabilerari jarraiki, bai zenbatzailea daramaten sintagmetan, bai izenondoak osatutakoetan ere:

hiru urteko umea, lau liburako ogia, hiru mila pezetako zapata-parea, hiru kilometroko bidea, pisu haundiko ganadua, gorputz handiko gizona...

-ko edo *-dun*-en ondoren doan izena (izenondo horiek kalifikatzen dutena) nolakoa den ere kontutan hartu beharko litzateke. Gure gaitasunaren arabera, behintzat (nahiz mendebaldeko erabilera islada dezakeen eta ez ekialdekoa), izena bizigabea denean errazago litzateke *-ko* aukeratzea (*lau langako ateka, bi gorringoko arrautza...*); izen hori biziduna denean, aldiz, *-dun* atzizkiak baliatuko ginatkeela iruditzen zaigu (*buruko ile luzedunak,*

elurrezko esku zuridun). Diogunaren lekuko, Altubek aipatzen duen *etxe bidun etxaguna*-ren ordez *etxe biko etxaguna* esango genuke; Orixeren ogei-*etxedun* («ogei sementzat nor ogei-etxedun?»), aldiz, *hogeietxeko* baino askoz naturalago egiten zaigu.

Zenbatzailea + izena egiturako Bahuvrīhi elkarteak (izenondorik ezin ager daiteke), azkenik, izen kategoriakoak izan ohi dira, ez izenondoak, tresna, arrain, intsektuak... izendatzeko sortuak.

Bada, azkenik, *-zko* atzizkia izenlagun kalifikatzaileak osatzen dituen, *-z* kasu-markadun adizlagunari *-ko* erantsiz sortzen den izenlaguna ez bezalakoa dena. Halako egiturek parean izenondoa izan ohi dute, balio bereko bikoteak osatuz; *ikaragarri* eta *ikaragarrizko*, *parregarri* eta *parregarrizko*, *ezin urratua* eta *ezin urratuzko* etab.

- «Egin dezakeen gaitza ere ez da gehiegizkoa izango» (Mitxelena, *Euskal...* IV, 33. or.)
- «parregarrizko edo negarrizko *-tzaz* agertu da, atzizki jator bat dagokion lekutik atereaz» (Mitx., id., 34. or.)
- «Euskal literaturak azkeneko urte hauetan miragarrizko lana burutu du» (25. or.)
- «ezin urratuzko aztarna utzi du betiko» (Mitx., id., 25. or.)
- «Ezin sinestuzkoa da gogogabeko urteotan eman digun euskal bizitzaren irudi garbia» (Mitx., id., 25. or.)
- «ezin hautsizko hesiz inguratua» (Mitx., id., 22. or.)

BIBLIOGRAFIA

- ALTUBE, S., 1929: *Erderismos* (1975, Bilbo, Indauchu Editorial).
- AZKUE, R.M. 1923-25: *Morfología Vasca* (1969, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca).
- DE RIJK R.P., 1988: «Basque syntax and Universal Grammar» *Euskara Biltzarra* I, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia, 69-88 or.
- Euskaltzaindia 1985: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*. I, Iruñea.
– 1987: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*. I (Eranskina), Bilbo.
– 1991: *Hitz-Elkarketa*/3, Bilbo.
- GOENAGA P., 1980: *Gramatika Bideetan*, Donostia, Erein.
- HARANEDER I., 1740: *Iesu Christoren Evangelio Saindua* eskuizkribua (1990, edizio kritikoa Patxi Altunak paratua, Euskararen Lekukoak-17, Bilbo, Euskaltzaindia).
- IRIGOYEN A., 1978: «Deklinabideaz» *Euskera* XXIV (2.aldia), 737-759.
- MITXELENA K., 1972a: «Etimología y transformación», *Homenaje a Antonio Tovar*, Madrid, Gredos, 305-371 or.
– 1972b: *Zenbait hitzaldi*, Bilbo, Etor.
– 1978: «Miscelánea filológica vasca. I» *Fontes Linguae Vasconum* X, 29, bereziki 208-218 or.
– 1986: «Eratorbidea eta Deklinabidea» *Euskera* XXXI, 535-541 or.
– 1988: *Euskal idazlan guztiak* IV, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, Elkar.
- ROEPER T. & SIEGEL M., 1978: «A lexical transformation for Verbal Compounds» *Linguistic Inquiry* 9, 2, 199-260 or.
- SCALISE S., 1987: *Morfología Generativa*, Madrid, Alianza.

- SELKIRK E., 1982: *The Syntax of Words*, Linguistic Inquiry Monographs 7, London.
- TRASK R.L., 1985: «-ko atzizkia euskaraz» *Euskera* XXX, 165-173 or.
- VILLASANTE L., 1974: *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Oñate, Editorial Franciscana Aránzazu.